

## FUNTSEZKO ELKARTEAK



JONEN\$ proiektuaren aplikazioa funtzionatzeko, hainbat hornitzaile eta bazkide izango lirateke beharrezkoak. Bazkideetako bat UPV-EHU izango bazen, berak emandako kapitalarekin enpresa sortzea ahalbidetuko zuen, eta onartuko ez bazuten bankuari mailegu bat eskatuko genioke enpresa sortzeko, beraz, gu izango ginatete enpresaren bazkide bakarrak, eta honekin batera enpresak izandako irabazi guztiak guretzat izango ziren.

Hornitzaileei dagokienez, Reale Seguros beharrezkoa izango zen, alokatuko ditugun etxebizitzetan biziko diren pertsonak seguru egoteko. Ikasleak haien etxeetan Interneteko konexioa izateko, Euskaltel edo edozein Wi-Fi sare lagungarria izango zen.



Aplikazioa izugarrizko BOOM-a izango balu, maila internazionala lortuko zuen, beraz, mundu osoko unibertsitate eta ikasle-egoitzekin kontaktuan jarri beharko ginatete, haiek gure hornitzaileak bihurtzeko asmoz.

Garraio-hornitzaileei dagokienez, garraio-enpresa bat gutxienez beharrezkoa izango genuke, hala nola, Euskal Herrian zehar mugitzeko autobus-enpresa bat, adibidez Eusko tren. Espainia mailan Renfe eta azkenean munduan zehar mugitzeko hegazkin-enpresa bat, hala nola Ryanair.



Hornitzaile hauek gure bezeroei bono-pertsonal batzuk eskainiko dizkiete deskontu moduan.